

PRENTSA OHARRA

"PALESTINAK IZAN BEHAR DU MUNDUAK AURRE EGIN BEHAR DION AZKEN GENOZIDIOA"

RENE CASSIN 2025 SARIRAKO FRANCESCA ALBANESEREN HAUTAGAITZAK BABESAK BILTZEN JARRAITZEN DU. EHUN KOLEKTIBOK ETA 1.000 PERTSONA BAINO GEHIAGOK BABESTU DUTE PROPOSAMENA.

Hautagaitza sustatzen dugun hiru erakundeek, ***SEADen Lagunen Elkartea***, ***Paz con Dignidad-Omal*** eta ***BDZ Euskal Herria***, jarraitzen dugu Francesca Albaneseren, 1967.etik ***Palestinar Lurralde Okupatuetako Giza Eskubideen Egoerari buruzko Errelatore Berezia****ren*, Rene Cassin 2025 sarirako hautagaitzarako babesa biltzen

Palestinako herriak bizi duen genozidioaren erdian, Gazan zibilen erailketa sistematikoaren, bizirauteko beharrezkoak diren ondasunen legez kanpoko blokeoaren, etxebizitzen eta azpiegituren suntsipenaren edo Zisjordanian okupazio eta errepresio bortitzagoaren aldean, keinu txiki bat da, ur tanta bat elkartasun globalaren olatu handiaren eta gobernu sionistaren krimenek eragiten duten haserrearen erdian - orain dela gutxi ***Global Sumud Flotilla***ri erasoa eta partehartzaileen bahiketaren kasuan bezala.

Francesca Albaneseren hautagaitzak, Palestinako Lurralde Okupatuari buruzko Errelatore Bereziaren kargua hartu duen lehen emakumeak, botere politiko eta ekonomikoen ekintza ezaren edo konplizitatearen aurrean - ***Nazio Batuen Giza Eskubideen Bulegoak*** salatu dituen 11 herrialdetako 158 enpresen kasuan bezala- ahotsa altxatu duten pertsona eta erakunde guztiak aitortu nahi ditu.

Francesca Albanesek genozidioaren izugarrikeria dokumentatzen eta salatzen jarraitzen du – zorroztasunez, beldurrik gabe eta atsedenik gabe –, egitez edo ez-eginez arduradun diren pertsona, enpresa eta estatu, kontuak eman ahal izateko itxaropenarekin. Gainera, egiarekin eta giza eskubideekin duen konpromiso urraezina dela eta, AEBk mehatxuak eta zigorrak ezarri dizkio "*Nazioarteko Zigor Gortearekin elkarlanean aritzeagatik AEBetako edo Israelgo herritarrak ikertzeko, atxilotzeko edo epaitzeko ekimenetan*", eta ezin konta ahala difamazio eta eraso pertsonalak.

Urriaren 12ra arte epea zabalik dago giza eskubideen defentsarekin eta **Palestinan**, **Mendebaldeko Saharan**, **Latinoamerikan** eta **mundu osoan** kolonialismoaren eta atzerriko okupazioen gaitzetik askatutako mundu justu, zuzen eta baketsu baten defentsarekin, dagoeneko konpromisoa erakutsi duten 1.**000 pertsona** eta **100 kolektibo**rekin baino gehiagorekin bat egiteko.

Beste behin ere, euskal gizarteak erakusten du Palestinako Herriaren, giza eskubideen eta justiziaren onaldean dagoela.

HAUTAGAITZARAKO ESTEKA: https://forms.gle/Sd6g8zZt23QQ6wAs7

Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

OBSERVATORIO DE MULTINACIONALES EN AMERICA LATINA
Investigando impactos y construyendo alternativas a las empresas transnacionales

KANPAINA BDZ EUSKAL HERRIA